Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

| | |
|---|---|
| **2010EKO ABENDUAREN 13EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 13 DE DICIEMBRE DE 2010.** |
| ============================ | ============================ |
| **B I L D U T A K O A K** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi Jn.

| | |
|---|---|
| **ALKATEORDEAK** | **TENIENTES DE ALCALDE** |

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |

Begoña Ezkurra Ciruelos (EAJ-PNV)
Aitor Soloeta Eraso (EAJ-PNV)
Kepa Miñambres Llona (EAJ-PNV)
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)
Álvaro González Pérez (EAJ/PNV)
María Luisa Arrue Bergareche (P.P.)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (P.P.)
Jesús Toca Toña (P.P.)
Iñaki Gamero Delgado (P.P.)
Raquel González Díez-Andino (P.P.)
Josu Ahedo Ruiz (P.P.)
Juan Luis Eguiluz Borde (P.P.)
Jorge Grases (P.P.)

Getxo UDALA • AYUNTAMIENTO

Jone Ruiz de Eguilaz Salazar (P.P.)
Alvaro Rodríguez Ratón (P.P.)
Luis Almansa Rubio (P.S.E.-E.E.)
Mercedes Angulo Ordozgoiti (P.S.E.-E.E.)
José Luis Cámara Ricondo (P.S.E.-E.E.)

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio J. Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko hamabietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ezohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita Kontu-hartzailea, Luis Angel Corcuera Ruiz jauna, ere.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión extraordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más el Sr. Interventor municipal don Luis Ángel Corcuera Ruiz.

Ordea, ez zen Manuel Basanta Santiago jauna (A) bilerara etorri.

No asistió el Concejal del grupo Alternatiba Manu Basanta Santiago.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dagoen gai bakarrari heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar el asunto único incluido en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**197.- LURRALDEKO PLAN PARTZIALA GETXON INDARREAN EZAR EZ DADIN ERABAKIA HARTZEKO PROPOSAMENA ETA BESTE.**

**197º.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL ACUERDO SOBRE LA NO APLICACIÓN DEL PTP EN GETXO Y OTRAS CONSIDERACIONES.**

Marisa Arruek ez ohiko osoko bilkura eskatu duten zinegotziek aurkeztutako proposamena irakurri du. Adierazi du, baita ere, legealdiaren azkenaldian egonik, EAJak Andra Mariko etxebizitzak eraikitzea bultzatu nahi duela. Adierazi du gobernu-taldeak berriki biztanleriari eta etxebizitza beharrari buruzko azterketa bat aurkeztu duela, eta azterketa horretatik ondorioztatzen denez, gobernu nazionalistaren hamabost urteko eraginkortasun ezaren ondorioz, Getxo Estatu osoan etxebizitza garestiena duen udalerria izatea ekarri du eta, gainera, etxebizitzak falta dira. Azterketa horretatik ere ondorioztatzen da, Getxok ez dituela behar LPPean jasotzen diren 8.000 etxebizitza eta ezta Alkateak hedabideen aurrean defendatzen dituen 5.000 etxebizitza ere. Adierazten du erreparoak dituztela azterketaren edukiaren gainean, harik eta hura sakonago aztertu arte eta haren lantze-mekanismoa ezagutu arte, baina bertatik ondorioztatzen da Getxok 3.800 etxebizitza gehiago behar dituela eta, horretarako, iritzi dute ez dela Andra Marin eraiki behar eta hiri-lurzoruaren gune batzuk birdentsifikatzearekin nahikoa dela. Gogora ekartzen du Getxon jada 3.413 etxebizitza daudela hutsik, eta haietatik 1.000 salgai daude, eta egoera horren aurrean konpromisoa hartzen du alderdi popularra datorren hauteskundeen ostean udal-gobernura iristen bada, gainerako 2.413 etxebizitza hutsak merkatura ateratzea sutatuko duela. Horretarako, Getxogune administrazio-unitate bat sortzeko konpromisoa hartzen du, eta haren zeregina etxebizitza bakoitza kasuz kasu aztertzea izango zen, gutxienez beste 1.000 etxebizitza salgai jartzeko xedez. Alderdi popularraren iritziz ere,

Marisa Arrue da lectura a la propuesta presentada por los concejales solicitantes del Pleno extraordinario. Indica asimismo que estando ya cerca del final de la legislatura, el PNV quiere impulsar la construcción de viviendas en Andra Mari. Manifiesta que por el equipo de Gobierno se ha presentado recientemente un estudio de población y necesidad de vivienda, y del mismo se deduce que la inoperancia de quince años de gobierno nacionalista ha traído como consecuencia que Getxo sea el municipio con la vivienda más cara de todo el Estado, y que además existe falta de viviendas. También de dicho estudio se concluye que Getxo no necesita las 8.000 viviendas que se recogen en el PTP ni las 5.000 viviendas que defiende el Alcalde en los medios de comunicación. Indica que tienen reservas sobre el contenido del estudio hasta que no puedan analizarlo con más profundidad y conocer todo su mecanismo de la elaboración, pero del mismo se desprende que Getxo necesita 3.800 nuevas viviendas, y para ello estiman que no hace falta construir en Andra Mari y que es suficiente con redensificar diversas zonas del suelo urbano. Recuerda que Getxo existen 3.413 viviendas vacías, de las que 1.000 se encuentran en venta, y ante esta situación se compromete a que si el grupo Popular accede al gobierno municipal tras las próximas elecciones, incentivará que las otras 2.413 viviendas vacías salgan al mercado, y para ello se compromete a crear una unidad administrativa Getxogune que tendría como tarea el estudiar el caso de cada una de las viviendas, a fin de conseguir por lo menos que otras 1.000 viviendas salgan a la venta. También en opinión del grupo Popular contribuiría a la solución de vivienda la

Getxoko hiri-lurzoruaren birdentsifikazioak etxebizitzari irtenbidea ematen lagunduko luke, hainbat aldiz planteatutako proposamena, baina beti EAJ horren aurka agertu dena. Gogora ekarri du Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak, besteak beste, jasotzen duela hiri-lurzoruan etxebizitzak eraikitzeko bost gune nagusi, eta haiei buruz alderdi popularrak birdentsifikazioa planteatzen du, eta hori egin izan bazen Getxoko etxebizitza-beharraren arazoa konponduta izango zen.

redensificación del suelo urbano de Getxo, propuesta repetidas veces planteada pero que siempre ha contado con la oposición del PNV. Recuerda que el Plan General de Ordenación Urbana contempla, entre otras, cinco zonas principales para la construcción de viviendas en suelo urbano, y sobre las mismas el grupo Popular plantea la resdensificación, que de haberse realizado hubiese resuelto la problemática de necesidad de vivienda de Getxo.

Almansa jaunak, alderdi sozialistaren izenean adierazi du gai hori zenbaitetan eztabaidatu dela osoko bilkuran, eta kasu honetan ikusten duen berrikuntza bakarra dela Getxoko Andra Mariko guneko zonalde berdeak kentzeak alderdi popularrari eragiten dion kezka; ez da gogoratzen, ordea, alderdi popularrak aldatu zuela lurzoruaren legeria 2006. urtean Estatuko Gobernuan zegoela; horrenbestez, babesteko landa-eremukoa ez zen lurzoru guztia lurzoru urbanizagarria izan zedila ahalbidetzeko, programatutako eta ez programatutako lurzoru urbanizagarriaren mailak kenduz. Gogora ekarri du LPPak ez duela 8.000 etxebizitza eraikitzera behartzen alderdi popularrak dioen moduan, baizik eta LPPak lotesletzat planteatzen du soilik 0 eta 3.034ren arteko tartean kokatzen den etxebizitza-kopurua; izan ere, gainerako aurreikuspenak ez dira lotesleak. Adierazi du berriki egin den Biztanleria eta Etxebizitza Azterketa oso erabilgarria dela, eta bertatik ondorioztatzen da Getxoko Udala dela soilik (dagozkion osoko bilkuretan hartutako erabakien bidez), udalerrian zenbat etxebizitza berri egingo diren erabakiko duen erakundea.

El Sr. Almansa en nombre del grupo Socialista indica que esta cuestión se ha debatido repetidas veces en el Pleno, y que en este caso la única novedad que observa es la preocupación que suscita al grupo Popular la eliminación de de zonas verdes en la zona de Andra Mari de Getxo, pero se olvida de que fue el Partido Popular en el Gobierno del Estado el año 2006 cuando modificó la legislación del suelo, posibilitando que todo el suelo que no fuera rústico de protección, pasara a ser suelo urbanizable, suprimiendo las categorías de suelo urbanizable programado y no programado. Recuerda que el PTP no obliga a construir las 8.000 viviendas como dice el grupo Popular si no que el PTP plantea como vinculante únicamente un número de viviendas que se sitúa en una horquilla entre 0 y 3.034, ya que el resto de las previsiones no tienen carácter vinculante. Indica que el Estudio de Población y Vivienda recientemente elaborado es de gran utilidad, y del mismo se concluye que es únicamente el Ayuntamiento de Getxo a través de los acuerdos plenarios correspondientes la entidad que va a decidir el número de viviendas nuevas necesarias a construir en el municipio.

Joseba Arregik gobernuko taldearen izenean adierazi du era honetako eztabaida bat lasaiago egin behar dela eta ez dela aurrez erabakitako ondoriorik izan behar, alderdi popularrak planteatzen dituen moduan. Iritzi du hirigintza onena gehiengo zabaletatik datorrena dela eta honako irizpide hauen pean proposamenak aztertu behar dituen eztabaida bat egin ostean: iraunkortasuna, espazioaren erreserbak, zerbitzu publikoen inplikazioa eta kostuak, hiriaren planteamendua. Izan ere, hiria beste ekosistema batzuekin lotuta dagoen ekosistema bat da. Adierazi du alderdi popularrak Getxon 25.000 biztanle gehiago egoteaz dihardula, eta horrek bere proposamenaren aurka jotzen du. Eztabaida Getxorako zer etorkizun nahi dugun oinarritu behar dela iritzi du, zenbat eraiki behar den, non, zenbat lurzoru okupatu behar den, eta hori ezin da gertatu alderdi popularrak egiten dituen proposamenekin. Proposamen horiek gobernuko taldea ahultzea besterik ez dute bilatzen. Gogora ekarri du udalbatzak bakarrik erabakiko duela, zenbat etxebizitza behar diren eta non kokatu behar diren, teknikoki prozesu konplexu baten ostean eta herritarren parte-hartze garrantzitsu baten ostean. Gogora ekarri du LPPa Lurralde Antolamenduko Arauen adar bat dela eta udal-plangintzaren gainetik dauden tresnak direla. Alderdi popularrari galdetzen dio LPParen zer atalen aurka egin nahi duen; izan ere, aipatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak Barakaldoko Udalak sustatutako errekurtsoan ez du zerikusirik Getxon planteatzen dutenarekin, ez eta alderdi popularraren adierazpenekin ere.

Joseba Arregi en nombre del equipo de Gobierno indica que un debate de este tipo debe ser sosegado y no tener unas conclusiones previamente determinadas como las que plantea el grupo Popular. Cree que el mejor urbanismo es el que viene de mayorías amplias y tras un debate que debe de estudiar las propuestas bajo criterios de sostenibilidad, reservas de espacio, implicación y coste de servicios públicos, planteamiento de ciudad, ya que la ciudad no deja de ser un ecosistema relacionado con otros ecosistemas. Indica que el grupo Popular habla de 25.000 habitantes más en Getxo lo cual contradice su propia propuesta. Opina que el debate debe ser cuál es el futuro que se quiere para Getxo, cuánto hay que construir, dónde hay que construir, con qué ocupación de suelo, y eso no se puede producir con propuestas como la del grupo Popular que únicamente busca el desgaste del equipo de Gobierno. Recuerda que sólo el Pleno decidirá, tras un proceso complejo técnicamente y tras una importante participación ciudadana, cuántas viviendas son necesarias en Getxo y dónde se van a ubicar. Recuerda que el PTP es una derivación de las Directrices de Ordenación del Territorio y son instrumentos que se sitúan por encima del planeamiento municipal. Pregunta al grupo Popular qué articulado del PTP quieren impugnar ya que la sentencia que citan del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el recurso promovido por el Ayuntamiento de Barakaldo nada tiene que ver con lo que plantean en Getxo, ni con las manifestaciones del grupo Popular. Recuerda además que el PTP habla de redensificación de suelos bajo parámetros de sostenibilidad, cercanía

Gogora ekarri du ere LPPak hitz egiten duela iraunkortasun, garraio publikoen hurbiltasun, lurzoruaren arrazoizko okupazioen eta abarren parametroen pean dauden lurzoruen birdentsifikzioaz. Horrekin batera, LPPak 16 urteko aldia hartzen du aldi baterako erreferentziatzat, eta epe hori udalaren hirigintzako aldi baterako plangintza-esparruak baino dezente handiagoa da. LPPean ageri diren etxebizitzen kopurua lau parametro aplikatzearen ondorioz ateratzen da, eta Getxorako zehazki berriz orekatzeko kanpoko parametroak 0 etxebizitza aurreikusten du, berriz orekatzeko barneko parametroak 0 eta 2.276 etxebizitza artekoa, eta Udalari dagokio tarte horretako etxebizitza-kopurua zehatzea, bigarren etxebizitzako eskaintzan zero etxebizitza, eta behar endogenoetan, haiek kalkulatzea Udalari dagokio egin den biztanleria- eta etxebizitza-azterketa berrian emandako datuetan oinarrituz.

a transportes públicos, ocupaciones razonadas de suelo, etc. Así mismo el PTP toma como referencia temporal un periodo de 16 años que es bastante mayor que los ámbitos temporales del planeamiento urbanístico municipal. En el PTP la suma de viviendas que vienen recogidas resultan de aplicar cuatro parámetros diferentes, y para Getxo concretamente el parámetro de reequilibrio exterior prevé 0 viviendas, el de reequilibrio interno una horquilla de 0 a 2.276 viviendas, y es al Ayuntamiento al que corresponde definir el número de viviendas en esa horquilla, en la oferta de segunda residencia cero viviendas, y en las necesidades endógenas, estas corresponde calcularlas al Ayuntamiento en base a datos que se aportan en el reciente estudio de población y vivienda realizado.

Arrue andreak adierazi duenez, alderdi popularraren irizpidea hirigunea birdentsifikatu behar dela da, eta erreferentziatzat Iturribarriko gunea jartzen da; bertan 4 altuera egitea planteatuta daude, baina bere alderdiaren iritziz areagotu daitezke lursailaren orografia kontuan hartuz, gainera. Hiriguneen dentsitatea % 30ean handituz 2.190 etxebizitza gehiago eraiki ahal izango ziren eta egun salgai dauden 1.000 etxebizitzari erantsita, eta aurretiaz adierazi dituzten administrazioko jarduketekin merkatuan eskaini daitezkeen gutxienez beste 1.000 etxebizitzari erantsita, behar adinako zenbakira iristen da Andra Mariko gunean jarduketarik egin beharrik gabe. Azpimarratu du LPPak 8.000

La Sra. Arrue manifiesta que el criterio del grupo Popular es que se debe redensificar la zona urbana, poniendo como referencia la zona de Iturribarri en la que están planteadas 4 alturas pero que en opinión de su grupo podrían incrementarse teniendo en cuenta además la orografía del terreno. Estima que incrementando en un 30% la densidad de las zonas urbanas libres se podría posibilitar construir 2.190 viviendas nuevas que sumadas a las 1.000 en venta actuales y a otras 1.000 que como mínimo se podrían ofertar en el mercado con las actuaciones administrativas que previamente han indicado, alcanzan ya un número suficiente sin tener que actuar en la zona de Andra Mari. Insiste en que el PTP contempla 8.000 viviendas en

etxebizitza jasotzen dituela Andra Marin eta EAJak hirigunea ez duela birdentsifikatzen Andra Marin etxebizitzen eraikuntza behartzeko. Presarik gabe baina gelditu gabe lanean jartzea beharrezkoa dela iritzi du, oraindik ere garaiz baitaude hirigintzako plangintza ez delako garatu udal-taldearen eraginkortasun ezagatik. Udalak etxebizitzen eraikuntza partikularren bidez sustatzen hasi behar duela uste du, jarrera pasiboa utzi eta aktiboari heldu Getxoko hiri-lurzorua birdentsifikatuz eta, hortik aurrera, etorkizunean Andra Mariko gune horretan jarduketa egin behar den ikusi. Adierazi du alderdi popularrak Getxoko Udalaren gobernuko ardura hartzen badu, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia berraztertzeari buruzko espedientea gelditukо dutela esleipena ateratzen den idazketa-taldeari baliogabetuz, Getxo LPParen irizpideen mende gera ez dadin.

Andra Mari y que el PNV no redensifica la zona urbana para tener que forzar la construcción en Andra Mari. Le parece necesario ponerse a trabajar sin prisa pero sin pausa con los propietarios de los terrenos, ya que aún todavía se está a tiempo porque el planeamiento urbanístico no se ha desarrollado por la inoperancia del equipo de Gobierno. Cree que el Ayuntamiento tiene que empezar a promocionar la construcción de viviendas por los particulares, pasar de una postura pasiva a una postura activa redensificando el suelo urbano de Getxo, y a partir de ahí ver si a futuro es necesario actuar en la zona de Andra Mari. Manifiesta que si el grupo Popular accede a la responsabilidad del gobierno del Ayuntamiento de Getxo paralizarán el expediente relativo a la revisión del Plan General de Ordenación Urbana anulando la adjudicación al equipo redactor que resulte, para que Getxo no tenga que estar sometido a los criterios del PTP.

Almansa jaunak azpimarratzen du eztabaida alderdi popularrak hauteskundeei begira sortutako muntaia bat dela. Gogora ekarri du LPPari eta Andra Mariko 8.000 etxebizitzari buruz sarritan eztabaidatu dela eta sarritan eman dela bere iritzia, kaltetuta izan daitezkeen bizilagunek barne, eta adierazpen horiek ez direla egia eta bizilagun horiek alderdi popularrarekin kexu agertu direla egindako adierazpenengatik. Uste du alderdi popularrak bilatzen duena Andra Mari dagoen moduan uztea dela, txalet oso garestiak eraikitzea ahalbidetuko duen dentsitate txikiko lurzoru urbanizagarrian, eta lurzoruan zarrastelkeriarekin jardutea. Plangintza hori alderdi popularraren bekatu bat dela uste du Lurzoruaren Legerian

El Sr. Almansa insiste en que el debate es un montaje del grupo Popular en clave electoralista. Recuerda que sobre el PTP y las 8.000 viviendas de Andra Mari se ha debatido muchas veces y se ha manifestado, incluso por los propios vecinos afectados, que esas manifestaciones no son ciertas y estos vecinos han recriminado al grupo Popular por dichas manifestaciones. Cree que el grupo Popular lo que busca es que Andra Mari se quede como está, en un suelo urbanizable de baja densidad donde se posibilite edificar chalets muy caros, y actuar con un despilfarro de suelo. Cree que esta planificación es un efecto del pecado del Partido Popular al suprimir en la Legislación del Suelo la diferencia entre suelo urbanizable programado y no

programatutako eta programatu gabeko lurzoru urbanizagarriaren arteko aldea kentzean, jabeek eraiki ahal izatea dakarrena; izan ere, Andra Mariko gunean plan partzialak aurkeztu dituzte, Hiri Antolamendurako Plan Nagusian hasieran jasota zegoenari jarraiki; alderdi popularrak ez zuen plan horren aurka egin, eta irizpide onez gobernuko taldea hori gerta ez dadin lortzen ari da. Adierazi du biztanleria eta etxebizitzari buruz emandako azterketan ondorioztatzen dela Udalbatzari dagokiola zenbat etxebizitza behar diren Getxon. Amaitzen du berretsiz proposamen hori alderdi popularraren muntaia bat dela hauteskundeko propaganda egiteko.

programado, lo que posibilita que los propietarios puedan construir, y de hecho en la zona de Andra Mari han presentado planes parciales, de conformidad con lo que inicialmente venía recogido en el Plan General de Ordenación Urbana, Plan al que no se opuso el grupo Popular, y que con criterio el equipo de Gobierno está impidiendo. Indica que en el estudio facilitado de población y vivienda se concluye que corresponderá al Ayuntamiento en Pleno el decidir cuántas viviendas se necesitan en Getxo. Finaliza ratificándose en que esta propuesta es un montaje del grupo Popular para hacer propaganda electoralista.

Arregi jaunak alderdi popularrari galdetzen dio zer biztanleria nahiko lukeen Getxon bizitzea eta hortik aurrera dagozkion erabakiak har daitezke. Adierazi du aurkeztutako azterketek erakusten dutenez, Getxoko biztanleria gutxitu egin dela azken urteotan eta, batez ere, jende gaztearen adin-tartea, etxebizitzarik ez dagoelako eta daudenak garestiak direlako. Etxebizitzaren beharrarekin, enpresa-jardueren beharrekin, biztanleriaren zahartzaroarekin… lotutako azterketaren datuak eman ditu. Azpimarratu du alderdi popularrak esan egin behar duela etorkizunerako zer eredu nahi duen Getxorako. Azterketaren datuekin uste du beharrezkoa dela egungo joera batzuk aldatzea eta, horretarako, ezinbestekoa dela adostasun politiko bat lortzea. Gobernuko taldeak badakiela zer bideri heldu behar dion adierazi du, hau da, herritarrekin adostasunean, eta Etxebizitzaren Planaren akordioan jasotako etxebizitza-jarduketekin segitu

El Sr. Arregi pregunta al grupo Popular qué población desearía que viviera en Getxo y a partir de ahí se pueden adoptar las decisiones correspondientes. Manifiesta que tal como se demuestra en los estudios presentados, la población de Getxo se ha reducido en los últimos años, y sobre todo, la franja de edad de gente joven, motivado por la falta de vivienda y por el precio de las que existen. Da datos del estudio relativos a necesidades de vivienda, a necesidades de actividades empresariales, envejecimiento de población, etc. Insiste en que el grupo Popular debe de decir qué modelo de Getxo quiere para el futuro. Cree que con los datos del estudio es necesario cambiar tendencias actuales y para ello es imprescindible un acuerdo político. Indica que el equipo de Gobierno sabe cual es su camino, el del consenso con los vecinos y seguir con las actuaciones en vivienda recogidas en el acuerdo del Plan de Vivienda. Espera contar con el grupo

behar duela. Alderdi popularraren laguntza izatea espero du Getxoko etorkizuna definitzeko bizi-kalitatearen eta ordenamendu iraunkorraren premisen pean eta amaitzen du esanez, proposamenaren aurkako botoa emango duela errealak ez diren egoerak planteatzen dituelako eta irtenbide zaharkituak planteatzen dituelako.

Popular para definir el futuro de Getxo bajo premisas de calidad de vida y ordenación sostenible y finaliza manifestando que votará en contra de la propuesta porque plantea situaciones no reales y soluciones obsoletas.

Arrue andreak Almansa jaunari gogora ekarri dio 2006an PSOE zegoela Espainiako Gobernuan eta ez PP. Adierazi du bat datorrela HAPNaren garapena alderdi guztien artean egin behar dela baina, hala ere, gobernuko taldeak alde bateko erabakiz onartu dituela, inori kontsultarik egin gabe, idazketa-taldea kontratatzeko baldintza-agiriak, eta haietan LPParekiko erabateko mendetasuna ageri da; horrek dakar Getxon 8.000 etxebizitza eraikitzea LPParen dokumentuan bertan jasotzen denez. Adierazi du alderdi popularrak gai hau osoko bilkurara ekarri duela Getxoren etorkizunerako oinarrizko gai bati buruz eztabaidatzeko beharra dagoelako, are gehiago, gobernuko taldeak legealdi honen 3 urte pasatzen utzi dituenean etxebizitzaren beharren azterketa egin gabe eta HAPNa berraztertzeko izapideak hasi gabe. Uste du EAJak etorkizunean PSEren laguntzarekin gobernuan badago, Andra Mariko gunea birdentsifikatuko dela eta hirigunea birdentsifikatu beharrean. Iritzi du alderdi guztiak etorkizuneko Getxoren alde lan egiteko badaude inolako baldintzarik gabe, beharrezkoa dela osoko bilkuran aurkeztutako proposamena onartzea. Eta proposamen hori onartzen ez bada, argi dago Andra Mari gune berde eta ez eraikigarri gisa defendatuko duen alderdi bakarra alderdi popularra

La Sra. Arrue recuerda al Sr. Almansa que el año 2006 gobernaba el PSOE y no el PP en el Estado. Indica que está de acuerdo en que el desarrollo del PGOU ha de hacerse entre todos los grupos, pero sin embargo el equipo de Gobierno ha aprobado de manera unilateral, sin contar con nadie los pliegos para la contratación del equipo redactor, y en los mismos se recoge una sumisión absoluta al PTP, lo que supone construir las 8.000 viviendas en Getxo tal como se recoge en el propio documento del PTP. Manifiesta que la razón que ha llevado al grupo Popular a traer esta cuestión al Pleno es la necesidad de debatir sobre un tema básico para el futuro de Getxo y más aún cuando el equipo de Gobierno ha dejado pasar más de 3 años de esta legislatura sin realizar el estudio de necesidades de vivienda y sin iniciar los trámites de revisión del PGOU. Cree que si el PNV gobierna en el futuro con el apoyo del PSE se redensificará la zona de Andra Mari en lugar de redensificar la zona urbana. Opina que si todos los grupos están por trabajar de común acuerdo por el Getxo del futuro y sin ningún tipo de condicionantes, es necesario aprobar la propuesta que ha presentado al Pleno, y que si esta no se aprueba está claro que el único grupo que va a defender Andra Mari como zona verde y no edificable va a ser el grupo Popular.

izango dela.

Almansa jaunak erantzun dio Andra Mari ez dela gune berde bat urbanizagarria den lurzoru bat baizik eta, hori, alderdi popularrak onartutako legeria batengatik. Eztabaidak ez duela zentzurik berresten du, alderdi popularrak egiazkoak ez diren datuetan oinarritzen baita Andra Mariko eraikuntzarekiko, bizilagunek beraiek dakiten moduan eta hala jakinarazi dietenez, eta proposamenaren atzean hauteskundeak jomuga duten justifikazio bat besterik ez dagoela. Adierazi du Hiri Antolamendurako Plan Nagusi berri bat lantzeko prozesua geldoa eta konplexua dela, herritarren parte-hartze handiena eskatzen duena; azkenean, ordea, Getxoko Udalak erabakiko du udalerrirako zer plan-eredu nahi duen.

El Sr. Almansa replica que Andra Mari no es una zona verde sino un suelo urbanizable, y ello por una legislación aprobada por el Partido Popular. Se ratifica en que el debate es absurdo ya que el grupo Popular se basa en datos que no son ciertos respecto a la edificación en Andra Mari, tal como los propios vecinos conocen y se lo han hecho saber, y que detrás de la propuesta sólo hay una justificación electoralista. Manifiesta que el proceso de elaboración de un nuevo Plan General de Ordenación Urbana es lento, complejo, que requiere gran participación ciudadana, pero que al final es el Ayuntamiento de Getxo el que va a decidir el modelo de Plan que quiere para el municipio.

Joseba Arregik gogora ekarri du alderdi popularrak ez duela parte hartu idazketa-taldea kontratatzeko baldintza-agirien erabakian berak ez duelako nahi izan; horrez gain, aditu bat izendatzeari uko egin dio, baita ere, Plan orokorra idazteko aurkeztutako proposamenak aztertzeko. Azpimarratu du LPPak ez duela Getxon etxebizitza-kopuru zehatz batera behartzen ez baita loteslea alderdi horietan. Amaitu du berretsiz Getxoko Udalak erabakiko duela zer Getxo nahi duen etorkizunerako, zer biztanleriarekin eta, horren arabera, eraiki beharreko etxebizitza-kopurua erabakiko du eta baita non kokatuko diren ere.

Joseba Arregi recuerda que el grupo Popular no ha participado en la determinación de los pliegos para la contratación del equipo redactor porque no ha querido, así como también ha renunciado a nombrar un experto para el estudio de las propuestas presentadas para redactar el Plan General. Insiste en que el PTP no obliga a un número concreto de viviendas en Getxo ya que no tiene carácter vinculante en esos aspectos. Finaliza ratificando que el Ayuntamiento de Getxo es el que decidirá qué Getxo quiere para el futuro, con qué población y en base a ello determinará el número de viviendas a construir y los lugares donde van a ubicarse.

Errefentziazko proposamena bozkatu ostean, honako emaitza hau izan du: PPren aldeko 10 boto eta EAJ eta PSE-

Sometida la propuesta de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 10 votos a favor del PP y 13 en contra

EEren aurkako 13 boto.

del PNV y PSE-EE.

Ondorioz, PP alderdiko udal taldeak aurkeztutako erabaki-proposamena udal batzarrak gehiengoaz atzera bota du, hona:

En consecuencia, la Corporación por mayoría rechazó la siguiente propuesta de acuerdo formulada por el grupo municipal Popular:

LEHENENGOA.- Getxoko Udalak konpromisoa hartu du bere hirigintza-plangintza berriz aztertzeko dituen beharren arabera, LPParen aplikazioa kontuan hartu gabe, etxebizitzaren gure beharrei dagokienez.

PRIMERO.- El Ayuntamiento de Getxo se compromete a revisar su planeamiento urbanístico de acuerdo a sus propias necesidades, sin considerar de aplicación el PTP, en cuanto a nuestras necesidades de vivienda.

BIGARRENA.- Udaleko Gobernu Batzordeak onartutako 174. erabakia baliogabetzea, eta idazteko talde berri baten esleipena etengo da, harik eta herritarren parte-hartze eta parte-hartze politiko baten prozesuaren bidez, adostasun batera iristen den arte Getxoko etxebizitzako beharren inguruan.

SEGUNDO.- Anular el acuerdo número 174 aprobado por la Junta de Gobierno Local, suspendiendo la adjudicación de un nuevo equipo redactor hasta que, a través de un proceso de participación ciudadana y política, se llegue a un consenso sobre las necesidades de vivienda de Getxo.

HIRUGARRENA.- Has daitezela, LPParen xedapenen aurka gure herriaren hirigintzako interesak babesteko beharrezkoak diren ekintza judizialak.

TERCERO.- Que se inicien las acciones judiciales necesarias para la defensa de los intereses urbanísticos de nuestro pueblo frente a las disposiciones del PTP.

LAUGARRENA.- Mozio honen berri herriko hedabideetan ematea.

CUARTO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.”.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du egun honetako goizeko hamarrak eta hamazazpi minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las diez horas y diecisiete minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.